

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gizarte Politiken Departamentuak garapen-lankidetzarako 3,3 milioi euroko laguntzak esleituko ditu datozen egunotan

*Alli kontseilariak Lankidetzeta Kontseiluaren bilkuraren buru izan da, eta deialdiak zer egoeratan dauden jakinarazi da bertan*

Lunes, 18 de mayo de 2015

Gizarte Politiken Departamentuak aurten irekitako garapen-lankidetzako laguntzen hiru-deialdiak ebatziko ditu datozen egunotan. 3.384.684 euro, guztira.

Hala jakinarazi die Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Allik Garapen Lankidetzako Kontseiluko kideei gaur goizean Nafarroako Jauregian izandako ohiko bilkuran.

Hiru deialdietatik, zenbateko handiena urte anitzeko programak diruz laguntzeko erabiliko da (1.650.000 euro). 18 eskaera aurkeztu ziren bertara. Bigarrena 1.472.000 eurokoa da, urteko proiektuak ditu xede eta 56 eskaera aurkeztu ziren. 262.242 euroko hirugarren deialdiak garapenerako hezkuntza-proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak finantzatzen ditu. 18 eskaera jaso ditu.

Departamentuak jadanik ebatzi diren beste bi deialdi ere eskaintzen ditu: Saharako herrirako laguntza humanitarioa (240.000 euro) eta larrialdi-egoeretan dauden ekintza humanitarioetarako diru-laguntzak (240.000 euro).

Kontseiluak Nafarroako Lankidetzako II. Plan Gidaria ebaluatzeko proposamen baten berri ere izan du; bertan, lortutako emaitza ezberdinak neurtuko dira, ikuspegi kuantitatibo nahiz kualitatibo batetik.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak Garapenaren Europako Urtea dela eta egingo dituen jarduerak aztertu ditu Kontseiluak, aurten ospatzen dena, Europako Parlamentuak eta Europako Kontseiluak hala erabakita. Egindako ekintzen artean, gaiari buruz emandako bi filmen proiektzioa aipatu beharra dago (800 ikasle izan ziren ikusten). Gainera, "Lankidetzaren 19 aurpegi" izeneko kanpainan parte hartuko da, lankidetzeta sustatzen Nafarroan lan egin duen pertsona bat aukeratzeko helburuarekin.



Lankidetzeta Kontseiluko bilkuraren une bat.